

## BITARAKO ADIZKERAK (2)

Leengo zenbakian, subjuntiboko orain-aldia aztertu genduan. Ikusi daigun gaur subjuntiboko leen-aldia (para que yo lo llevase = NOR-NOK, eta yo se lo llevase a V = NOR-NORI-NOK). Aditzaldi onetan naaste audiagoa dago, adizkerak gutxiago erabilten diralako-edo.

NOR-NOK eraz, guztiak bat datozala esan daikagu. NOR-NORI-NOK eraz, ostera, (edo NOK-ARI-ZERBAIT argiago), ez ainbeste. Azkue'k NG bagarik dakaz: nik zuri zerbait eroan neizun (edo neizula); Villasante'k N bagarik eta G'az: eroan negizun. Puxana'k eta Zamarripa'k, barriz, NG'az, irugarren personetan izan ezik: eroan nengizun eta egizun. NOR-NOK adizkerak N'az eta NOR-NORI-NOK bigarren N bagarik erabili ezkero, ez litzake ainbeste naasterik izango. Ikusi:

Pux eta Zamarripa'k	eroan NENGIZUN	para que V. me llevase (NOR-NOK) para que yo se lo llevase a V. (NOR-NORI-NOK) = NEGIZUN
Azkue'k eta Villasante'k	eroan NENGIZUN: eroan NE(G)IZUN (bigarren N bagarik):	para que V. me llevase (NOR-NOK) para que yo se lo llevase a V. = NEGIZUN
Puxana'k eta Zamarripa'k	eroan NENGIZUEN	para que vosotros me llevaseis (NOR-NOK) para que yo os lo llevase (NOR-NORI-NOK) = NEGIZUEN
Azkue'k eta Villasante'k	eroan NENGIZUEN: eroan NE(G)IZUEN (bigarren N bagarik):	para que vosotros me llevaseis (NOR-NOK) para que yo os los llevase = NEGIZUEN

Beraz, azkoz argiago Azkue ta Villasante'ren adizkerak erabili ezkero.

\* \* \*

Aditzaldi onetan be, **arei** danean, orain- aldirako esan genduan gora-beerea agertzen da: **O** erabili ala ez. An esE genduanez, **ari** esateko, **O** erabili; eta **arei** esateko, **O** kendu. Begira aldea:

Azkue'k (G bagarik) eta Puxana'k (G'az)	eroan E(G)IOEN	para que ellos se lo llevasen a el para que el se lo llevase a ellos para que ellos se lo llevasen a ellos = (Azkue'k EIOEEN)
Villasante'k: eroan EGIEN		para que ellos se lo llevasen (NOR-NOK) para que el se lo llevase a ellos = EGIEEN edo EGITSEN para que ellos se lo llevasen a ellos = EGITSEEN

Beste adizkera bat:

Azkue'k (NG bagarik) eta Puxana k (NG az)	eroan ZE(NG)IOEN	para que V. se lo llevase a ellos para que vosotros se lo llevaseis a ellos (Azkue'k ZEIOEEN)
Villasante'k: eroan ZEGIEN		para que V. se lo llevase a ellos = ZEGITSEN para que vosotros se lo llevaseis a ellos = ZEGITSEEN

Beste adizkera bat:

Azkue'k (G bagarik) eta Pu (G'az)	eroan E(G)IZUEN	para que el os lo llevase para que ellos se lo llevasen a V. = EGITZUEN
---	-----------------	--

Puxana'k: eroan EGIZUEEN: para que ellos os lo llevasen (Azkue'k EIZUEN, aurrekoa lez) = EGITZUEEN

Urrengo zenbakirako: AGINTE-ERA (Imperativo).

KEREXETA